

sagardoa

## Mikel Arozamena

Mikel Arozamena Larralde bertsolaria, Lesakan jaio zen, Biteri kaleko Mikelenea etxean, 1930 urteko abuztuaren 31an. Handik Bordaberrira aldatu ziren eta gero berak zazpi urte zitularik, Astigarragara etorri zen famili guzira eta Oialume bailadako Arana-eder etxean bizitzeko jarri ziren.

Zortzi senide izan dira: bi hilak eta gaur egun sei bizi dira: Mikel zaharrena, Manuel, Baleriana, Benita, Joxe ta Tomaxi.

Gazterik hasi zen bertsotan, Astigarragako sagardotegitan eta.

Geroztik ia igandero hor dabil herriz-herriz etengabeko jardunean.

Bertsotik hauek batzuk, lendik paratuak zituan Arozamena eta Principe de Viana aldirian argitaratuak. Baina onera baino lehen berriz ere aztertu ditu eta hau da, hemen ikutu eta aldaketa batzuk egin ere bai, bere gustora ipintzearen.

Beste bertsotik batzuk, berriz, oraingo berri-berriak dira, bere gogoko gai batzueri jarriak: Astigarragako herriari jarritako bertsotik:



1  
Astigarraga deitzen diogu  
erribat zoragarriya  
ni Lesakatik etorri eta  
orixen bizitzen jarriya  
alde batek Portugal dauka  
bestetik Ergobiya  
orain auzuna izaten dugu  
lenago zana erriya

3  
Astigarragak pama izan du  
sagardo onak izaten  
mutil koskorra nizan ni baña  
goguan nola daukaten  
aste santuan elizkisinak  
gero sagardo edaten  
esan nai nuke eztaikitenak  
orain jakindu dezaten

5  
Andik urrena Santiyomendi,  
ara mendian kaskuak  
an e kupelak izaten ziren  
eginda daukat juzkuak  
andik e jexi izandu dira  
maleta egiazkuak,  
ta Goikoetxen egoten ziran  
sagardo bikain askuak

2  
Lesakatikan etorri nintzen  
neue pamel danakin  
iru senide anai ta arreba  
eta aita ta amakin  
aitaren lana emen zan eta  
bizi biar alkarrekin  
bata bestearen laguntzarekin  
inortxok nai badu jakin

4  
Gartziategi eta Portutxo  
ta Mendiola urrian  
Kakonia eta Errekalde  
bere biziko indarrin  
Jose Beltzaneko Rikardok e  
Desiertoko kupelian  
ta Izaskungo arribikuak  
eztira oso motelan

6  
Best bat bada Astigarragan  
Borda ditzen dioguna  
nik bezelaxe geiagok ere  
izango dute entzuna  
pamel dena ezagutzen det  
berarekin badet jarduna  
biotz-biotzez zerbitzen dute  
eskaten diozuna

7  
Eztaikit danak esango nitun  
baliteke aztutzia  
kolpe baitan ez da erraza  
guzietaz oroitzia  
aurretik ona izan liteke  
errepauran jartzia  
ta inorekin utsegin badet  
nai nukena barkatzia

8  
Euskaldunentzat ederrik bada  
au da sagardotegiya  
Astigarragan ugari bada  
naiz izan erri txikiya;  
bide bakar auxe degu-ta  
antziak utziya  
Euskalerriko eraria da  
sagardo maitagarriya.

9  
Astigarragan ni bizitu naiz  
ogei ta amar bat urtian,  
poza ta penak izandu nitun  
an negoen bitartian  
seme ta alaba kanposantuan  
antxe dirade lurpian  
Jaunak nai duan artian

10  
Ara nolatan izandu diran  
nere emengo pausuak  
pasatu ditut egun tristeak  
baitare une gozuak  
Arana-eder etxeak eta  
gure arreba zarrenarekin  
antxe daude gurasuak

11  
Gu seisenide bizi gerade  
eta zortzi izanduak  
badakizute, gorabera asko  
izaten ditu munduak  
aitak ekartzen zuanetik  
jantzi eta mantenduak  
kaso egitea merezi du gaur  
len ainbeste lagunduak.

12  
Dozenatxo bat jartzeko asita  
au ogei ta laugarrena  
geiago esan gabe utziak  
neri ematen dit pena  
bukatu zaigu etorria ta  
asperture bai barrena  
okerrik egin badet barkatu  
auxen da nere azkena.

13  
Ara nolatan izandu diran  
nere emengo pausuak  
pasatu ditut egun tristeak  
baitare une gozuak  
Arana-eder etxeak eta  
gure arreba zarrenarekin  
antxe daude gurasuak

14  
Gu seisenide bizi gerade  
eta zortzi izanduak  
badakizute, gorabera asko  
izaten ditu munduak  
aitak ekartzen zuanetik  
jantzi eta mantenduak  
kaso egitea merezi du gaur  
len ainbeste lagunduak.

15  
Dozenatxo bat jartzeko asita  
au ogei ta laugarrena  
geiago esan gabe utziak  
neri ematen dit pena  
bukatu zaigu etorria ta  
asperture bai barrena  
okerrik egin badet barkatu  
auxen da nere azkena.



### AKARREGI

#### SAGARDOTEGIA

Joxe Izagirre Aduriz

B° Akarregi, 5  
Telf.: 55 34 95

HERNANI

### TXIKIERDI SAGARDOTEGIA

Txikierdi Baserrira

Telf.: 35 46 74

OIARTZUN

